



Etixerik ez izateak hil egiten du

Bere ametsak, bere aukerak, bere konfiantza, bere osasuna... Bere eskubideak

eta zuk, zer diozu?
esan aski da

INOR EZ ETXERIK GABE



Etixerik gabeko pertsonen kanpaina
2020ko urriak 25

A close-up photograph of a hand holding a piece of brown cardboard. A rectangular hole has been cut out of the cardboard, and a person's finger is visible inside the hole. The background is a solid, dark grey color.

**ETXEBIZITZA
ESKUBIDE
BAT
DA**



Gizateriaren eskubide bat da, gainerako Giza Eskubideei oso lotua, pertsonok duintasun osoz bizi ahal izateko bermea baita.

Horregatik, bizitzeko leku egoki eta duin bat edukitzeko aukerarik ez duten pertsonak, ukatu zaizkien eskubide guztiak eskatzen jarraitzen dute, eta gogorarazten digute beraiek ere guztiok bizi garen gizartearen eta komunitatearen parte direla.



GIZARTE AHULAGO ETA KALTEBERAGO BATEAN BIZI GARA

COVID-19aren ondoriozko inguruabarrek **mapa historiko berri** batean birkokatu gaituzte, eta gizarte osoa egoera ahulago eta kalteberago batean dago gaur egun. **Ahultasun kolektiboko esperientzia** bat bizi izan dugu, gaixotasunaren mehatxupear sentitu gara, eta egoera horrek **elkartasun uholde** bat eragin du gainerakoekiko sentsibilitate kolektiboan; baina, era berean, kutsatzeko eta kutsatuak izateko **beldur kolektiboa** ere ezarri da, eta orain arte inoiz bizi izan ez zen egoera honek nahasmena eragin du.

Errealitate horretatik abiatuta, **larrialdi ekonomiko eta sozialeko** testuinguru honetan, eta ikusirik **etxebizitzaren eta bizitokiaren krisia** areagotu egin dela, **etxerik gabeko pertsonen errealitateari buruzko sentsibilizazio kanpaina** honi ekin diogu.

Zein da gure helburua? Gizartearen arreta eskatzea, herritar guztientzako gizarte eredu iraunkor eta inklusibo bat eraikitzeko eta ehuntzeko ardura duen kolektibitatea den aldetik.

Aukera berri bat da kontzientzia hartzeko eta gure bizikidetzaren zutabeak elkarrekin birpentsatu eta horiei zentzu berri bat eta balioa emateko, etxerik gabe dauden pertsonak barne hartuta.

Gaur egun, gizarte gisa, gehiago jabetzen gara etxearen garrantziaz. Etxea da gure aterpea eta babeslekua, bertan salbu gaude, atsedean hartzen dugu, zaintzen gara... Horregatik, etxerik gabeko pertsonak bizi duten errealitatea ikusarazi eta horren inguruan sentsibilizatu nahi dugu, horixe baita etxebizitzarako giza eskubidea urratzeak dakarrenaren adierazpen argiena, kontuan hartuta etxebizitza egoki baten eginkizun nagusietako bat babestea dela.

Etxebizitza Egokitu baterako Nazio Batuen Errelatore Bereziaren (Leilani Farha) planteamenduari jarraituz: **"koronabirusari aurre egiteko lehen defentsa lerroa etxebizitza da"**.

Pandemia dela eta **biztanleei jarritako neurri** asko, hala nola higiena areagotzea, bizitexean geratzea edo urruntze sozial zorrotza betetzea, **ez dira errealistak, ezta posibleak ere, kalean bizi diren pertsonentzat** edo horretarako leku egokirik ez dutenentzat.

Bizitokiaren ezegonkortasunak edo etxebizitza desegoki edo ez-seguru batean bizitzeak zuzenean eragiten du etxe kaltebera batean bizi diren pertsonen ongizate emozionalean eta osasun psikikoan, izan ere, hamar aldiz arrisku handiagoa dute osasun txarragoa izateko, Provivienda elkarteak egindako "Bizitetxeak gaixotzen gaituenean, II" txostenaren arabera. Gainera, kalean bizi diren pertsonak askoz ere arrisku handiagoa dute gorroto delituak jasateko: gorroto delituen aurkako Hatento Behatokiaren esanetan, **etxerik gabeko pertsonen % 47,1ek gutxienez gertakari edo delitu bat jasan izan dute** haien bazterkeria egoerarekin erlazionatuta, etxerik gabe igaro duten denboran.

Azkenik, "Etxerik Gabeko Pertsonentzako 2015-2020ko Estrategia Nazional Integrala" azterlanean jasotzen denez, **"etxerik gabeko pertsonen bizi itxaropena 42-52 urte bitartekoa da: biztanleria orokorrarena baino 30 urte gutxiago, gutxi gorabehera"**.

**Etixerik ez izateak
bizitza
laburtzen du**

ETXERIK GABE BIZITZEA ATERPERIK GABE EGOTEA BAINO ASKOZ GEHIAGO DA

Betiere begirada integraleko proposamen batekin eta Giza Eskubideetatik:

Habitata



=



ETXEBIZITZA ANTZOKIA ETXEBIZITZA GIZARTE IKASTETXEA
ZERBITZUAK

(ESPAZIO FISIKOA)

+



GIZA
ESKUBIDEAK

HARREMANAK

BIZI-ZENTZUA

(PERTSONAREN OSOTASUNA)

Etrea aipatzen dugunean, honako hauek hartzen ditugu kontuan:

➤ **Espazio fisikoa:** etxebizitza eta ingurunea (habitata), sostengagarriak eta eskuragarriak.

➤ **Pertsonaren bizipen integrala: bizitzaren zentzua, harreman eremuak eta giza eskubideak** (enplegua, hezkuntza, parte hartzea, osasuna, gizarte babes, etxebizitza, etab.) eskuratu eta gozatzeko aukera.

Horrela, **“bizitetxerik ez izateak hiltzen du”** esaten dugunean, nabarmentzen dugu etxerik ez izateak pertsonen osasunean eta egoera fisiko eta psikologikoan duen eraginaz gain, eragotzi egiten duela etxebizitzaren bizitza eta gizarte funtzioaz eta gizarte harremanez gozatzea, kontuan hartuta etxebizitza dela leku bat non babes, zaintza eta oinarrizko eskubideak gauzatzen diren, pertsona osoak izan gaitzen. Aspalditik ari gara aldarrikapen hori egiten gure kanpainetan.

Etxebizitza egoki bat izateko eskubidea giza eskubidetzat aitortzen dute Nazio Batuek, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25. artikuluan, bai eta 1996ko Europako Gutun Sozial Berrikusiak ere, non etxebizitzarako eskubidea 31. artikuluan jasotzen den; Espainiak ez du berretsi Gutun Soziala, eta, beraz, artikulua hori ez da zuzenean aplikatzen. Bestalde, **Espainiako Konstituzioak etxebizitzarako eskubidea aitortzen du **47.C artikuluan.****

Esparru juridiko hori zehaztu eta gauzatu behar da, politika publikoak indartuz etxebizitzarako giza eskubidearen ikuspegitik. Politika publikoek beren fokuan jarri behar dituzte pertsona kalteberak, izan ere, askotan ikusezinak dira, edo sistematik kanpo daude.



**ETXEBIZITZARAKO
GIZA
ESKUBIDEAREN
URRAKETA
COVID-19aren
AROAN:
PROPOSAMEN
BATZUK**





Ezohiko krisi garai batean gaude, eta eskubide batzuk are gehiago lausotzen dira. Hori dela eta, proposamen zehatzak egin ditugu COVID-19aren osteko berreraikitze sozialaren agertoki baterako; horietako batzuk jada planteatuta zeuden “Cáritasen azterketa eta proposamenak (berr)eraikuntzarako” dokumentuan:

- Premiazkoa da **etxebizitza bermatzeko estatuko lege** bat egitea (**bizitegi bazterketako/etxegabetasuneko egoera guztiak barne hartuko dituen**).
- Herri Administrazioak ahalegin handiagoa egin behar du **etxebizitza parkea birgaitzeko eta mantentzeko** eta alokairu sozialeko etxebizitzaren sustapenari lehentasuna emateko.
- **Bizitegi bazterketaren/etxegabetasunaren aurka borrokatzeko estrategia espezifiko bat definitu eta ezarri behar da**, etxebizitzarako giza eskubidearen ikuspegian oinarrituta, aurrekontu zuzkidura egokiarekin eta administrazio maila guztien eta administrazio guztien baterako parte hartzean oinarritua.
- **Alokairuko ohiko etxebizitzan bizitoki alternatiboa** izateko aukerarik ez dagoenean **etxegabeteak eta kaleratzeak** geldiarazteko ezohiko neurriari jarraipena eman behar zaio.

ETXEGABETASUNARI BURUZKO ZENBAIT DATU



ETXE BAT
NAHI DUT

1 FOESSA Fundazioak "Espainiako Gizarte Bazterketari eta Garapenari buruzko VIII. Txostena" delakoan adierazten duenez, ia 800.000 etxek eta **2,1 milioi pertsonak segurtasunik eza bizi dute beren etxebizitzan**. Gainera, 1.300.000 bat etxek eta **4,6 milioi pertsonak desegokitasun egoerak pairatzen dituzte etxebizitzan**. Eta 150.000 etxe eta milioi erdi pertsona inguruk jasaten dituzte aldi berean segurtasunik eza eta desegokitasuna etxebizitzan.

2 Cáritasen Errealitate Sozialaren Behatokiaren 2020ko ekaineko txostenean, "COVID-19aren krisia: lehen eragina Cáritasen laguntza duten familietan" izenekoan, agerian geratu da COVID-19aren krisiaren eraginez 700.000 pertsonak baino gehiagok, Cáritasen laguntza duten familien % 49,2k, ezin dutela hipoteka edo alokairua ordaindu. Bestalde, litekeena da Cáritasek artatutako lau familiatik batek (% 24) bere etxebizitza galtzea.

3 Europan, etxegabetasun egoerak arintzetik urrun, arazoak areagotzen jarraitzen du. FEANTSAk emandako datuen arabera, gauero gutxienez 700.000 lagunek kalean edo larrialdiko ostatu batean lo egiten dute, eta horrek esan nahi du % 70eko igoera gertatu dela 10 urtean (410.000 pertsona ziren 2009an).

4 Etxerik Gabeko Pertsonentzako 2015-2020ko Estrategia Nazional Integralean jasotako zifra ofizialen arabera, Espainian etxerik gabeko 33.275 pertsona daude.

5 Kontrara, eta Herriaren Defendatzailearen "Etxebizitza babestua eta alokairu soziala Espainian 2019" txostenaren arabera, Espainiak ez du alokairuko etxebizitza sozialen parke egokirik. Dauden datuen arabera, 275.000 bat etxebizitza dira, etxebizitza nagusien parkearen % 1,5, eta Europa osoko ehunekorik baxuenetako bat da.

6 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2019an 54.006 etxegabetze egin ziren Espainian, eta 2018an baino % 9,5 gutxiago izan baziren ere, errealitate dramatiko bat islatzen dute: ia 150 etxegabetze egunero, hau da, 6 etxegabetze orduko.

ETXEGABETASUNA PERTSONA
ETXEA

GIZARTEA

**AURREAN
DITUGUN
ERRONKAK ETA
AUKERAK**

ETXEBIZITZA

ESKUBIDEA

BAZTERKERIA

SOTZIALA

Guztiok sentitu dugu ahultasun eta kalteberatasun berezi bat COVID-19ak sortutako egoeratik. Une egokia da bestearen lekuan jarri, pertsona kalteberenak bizitzen ari diren errealitatean pentsatu eta kontzientzia hartzeko.

Eta pertsona baztertuenak, babesteko tokirik ez dutenak?

Saiatuko naiz haiengan pentsatzen, eta sentitzen nola ari zaien eragiten egoera hori?

Hurbiltasunean eta errespetuan oinarrituta, saiatu naiteke ezagutzen zer egoeratan dauden etxebizitza galtzeko mehatxupearan dauden hurbileko pertsonak, senitartekoak, bizilagunak... eta, ahal izanez gero, bideratu ditzaket eta lagundu diezaieket auzoan, herrian... dauden laguntza zerbitzuetara jotzen.

Orain aukera dugu **errealitate berri bat eraikitzeko, eredu aldaketa bat egiteko**. Ez dugu itzuli nahi lehengo egoerara, eta **errealitate berria INOR EZ ETXERIK GABE** izatea nahi dugu.

Gizarte bat eraiki nahi dugu, non pertsonak edozein politikatan eta edozein neurritan parte hartuko duten eta erdigunean egongo diren, arreta berezia jarrita bazterketa handieneko egoeran dauden pertsonengan. Aldaketa hori eragiteko, hainbat erronka ditugu aurrean, aukera bat gauzak beste modu batean egiteko:

Unibertsaltasun eta berdintasun osoz biziko garen gizarte baterantz aurrera egitea, non Herri Administrazioek bermatu beharko duten bizitza duina pertsona guztientzat, bai eta Giza Eskubideak eskuratu eta gozatzeko aukera ere, gogoan izanik etxebizitza dela osasuna, bizitza eta duintasuna zaintzeko lehenengo babes hesia.

Modu koordinatuan jardutea, gogoratuz zer sinergia sortzen dugun gizarte erakundeen artean sarean lan egiteko espazioei bultzada ematen diegunean. Erantzun bat ematea eskubideetan oinarrituta, gizarteratze prozesuak erraztuko dituen gizarte babeseko sistema indartsu eta finkatu baten alde egingo duena.

Komunikabideak sentiberak eta egitiak izatea, COVID-19aren krisiak eragin duen informazio saturazioari aurre egiteko gai izatea, eta, aldi berean, etxerik gabeko pertsonak bizi duten egoera ezagutzera ematen eta horren inguruan sentsibilizatzen laguntzea, ohiko estereotipoak errepikatu gabe.

Aurrera egitea zainketen gizarte baterantz, zeinean pertsona bakoitzaren bizitza babestuko dugun, bereziki pertsona kalteberenena, eta elkartasuna, justizia, enpatia eta bestelako balioak berreskuratuko ditugun. Eraldaketa hori komunitatean eman behar da praktikan, denok baitugu bertan leku bat izateko eskubidea. Hor (eta horrela) bihurtu daiteke errealitate INOR EZ ETXERIK GABE.



**Etxerik ez izateak
kalte larria
egiten dio
osasunari**

Eta **zuk**,
zer diozu?
esan aski da.
INOR EZ ETXERIK GABE



Etxerik gabeko pertsonen kanpaina
2020ko urriak 25

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



FINANTZATZAILEA

